

HITZA



UDA BIZITZEKO GONBITEA

Erretinan gordeta geratuko
diren paisaietan eta bizipenetan
murgiltzeko eskaintza zabala
daukate aukeran bisitariek
Lea-Artibain, Mutrikun
eta Busturialdean

Turismoa

Lea-Artibai, Mutriku
eta Busturialdean

Erretinan gordetzeko egun ahaztezinak

Larraitz Ibaibarriaga Etxaburu
Hitzako zuzendaria

Desiatzen. Desiatzen gaude guztiok uda bete-betean gozatzeko. Desiatzen inguruak, paisaiak, lurra, itsasoa arnastu eta irudimena as- katzeko. Barruan daukaguna aire- ratzeko, nahierara.

Ezohiko udaberria igarota, merezitako atseden egunak ekarriko dizkigu uda sa- soiak. Bakardadean, lagunekin zein familian ondo baino hobeto pasatzeko aisialdi auke- rak. Kirola praktikatzu. Mendi berde eta urre

koloreko hondartzen eta itsasoaren handita- sunean murgilduz. Kale artean galduz. Kul- tura aho betean irentsiz. Abenturak bizitzera ausartuz. Kulturaz eta historiaz bustiz. Ai- sialdi aukera horiek eta gehiago eskainiko dizkizu Lea-Artibai, Mutriku eta Busturial- deak. Nahierara.

Xarmaz, enkantuz betetako ageriko eta ez- kutuko txoko asko aurkituko dituzte bisita- riek gurean. Altxorrez betetako paradisuak; gailur zein magal ederrak, itsasadar amaiga- beak; itsasoaren urdina landa eremu eta mendi magalen berdearekin uztartzen diren paraje ikusgarriak; erretinan gordeta geratu- ko diren paisaia ahaztezinak; betirako oroi- tzapenean finkatuta geratuko diren egun- senti eta ilunabarrak...

Eskuak zabalik hartuko zaituztegu. Etorri gurerara, eta gozatu uda!



HITZA

Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko HITZAren
TURISMO GIDA • 2020ko uda

Argitaratzailea: Lea-Artibaialdeko Hedabideak, S.L.
Lege Gordailua: BI-2906-03. **ISSN:** 2173-7118.
Kudeatzailea: Idurre Arrazola Astoreka.
Zuzendaria: Larraitz Ibaibarriaga Etxaburu.
Zuzendariordeak: Asier Alkorta Bengoetxea eta Oihana Cabello Elorriaga.
Testuak: Asier Alkorta, Nerea Bedialauneta, Lore Bengoetxea, Oihana Cabello, Larraitz Ibaibarriaga, Ane Maruri, Aintzina Monasterio, Eider Mugartegi eta Olaia Zabalondo.
Publizitatea: Maite Laka Itxaso eta Maribi Fernandez Zabala.
publibusturia@hitza.eus • 647 31 97 77 / publilea@hitza.eus • 600 57 14 26
EGOITZAK:
Bermeo. Atalde 17, atzealdea, 48370. Tel.: 94-618 72 99.
Gernika-Lumo. Domingo Bernaola, 4 (behea), 48300. Tel. 94-627 10 85.
Markina-Xemein. Arretxinaga, 1 (behea), 48270. Tel. 94-684 44 36.
Mutriku. Barrenkale, 12 (behea), 20830. Tel. 943-60 34 68.

Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.L.ko kideak: **11barri** **KALAPUTXI** **BERTAKO** eta beste 108 eragile

Euskaraz bizi nahi dut **HITZAk Bai Euskarari** **bai** zerbitzua eta lana euskaraz **2015 Bikain**

JARRAI GAITZAZU SAREAN ERE:

www.busturialdea.hitza.eus
www.lea-artibaietamutriku.hitza.eus



Aurkibidea

GURE HONDARTZAK	3
LEKEITIO / MENDEXA	4
MUTRIKU / ONDARROA	5
EA / IBARRANGELU	6
MENDEXA ABENTURA PARK	7
MARKINA/XEMEIN	8
ZIORTZA-BOLIBAR / ETXEBARRIA	9
AULESTI	10
MUNITIBAR	11
ARRATZU / NABARNIZ / GAUTEGIZ ARTEAGA	12/13
MURUETA	14
IBARRANGELU	15
LEA IBARRA	16

Inguru eder eta zoragarrian bizi gara maita dezagun ondo

www.lea-artibaietamutriku.hitza.eus • www.busturialdea.hitza.eus

LEA-ARTIBAI, MUTRIKU ETA BUSTURIALDEKO

HITZA



Surflarientzat topaleku erakargarria da Lagako hondartza. AINTZINA MONASTERIO



Jendea, Ondarroako Arrigorri hondartzan. NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

Oasiak diren hondartzez beteta daude Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea, eta horiez gozatu daiteke. Neurri zehatzak bete beharko diren arren, hondarretan blai ibiltzeko aukera zabala dago.

Altxorrez betetako paradisuak

Herrigunean zein mendi artean batestuta dauden hareatza handiz zein txikiz inguratuta daude Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea. Urre kolorez jantzitako altxorrez beteta daude eskualdeotako hondartzak; ederrak dira, berezko xarma dute.

Paradisuak dira, eta uda helduta bisitariz betetzen hasi dira. Hareatzen eguna pasatzeko edota bainua hartzeko aukera emateaz gain, inguruko mendietatik ibilbideak egiteko aukera ere eskaintzen dute.

Hondartzetaz gozatzeko aukera, baina, ohi baino berandago heldu da. Ekainaren lehenen hasi ohi da hondartza denboraldia Bizkaian, baina aurten ekainaren 15ean eman diote hasiera, COVID-19ak sortutako pandemia dela eta. Gipuzkoan ere bi astez atzeratu dute denboraldi hasiera, uztailaren 1era.

Gaixotasuna ez hedatzeko, hondartzak prestatu dituzte. Udalek lan handia egin dute, eta herriz herri bakoitzari egokitutako neurriak hartu dituzte. Hala ere, badaude hondartza guztietan bete beharreko neurri orokor-

rak ere. 11:00etatik 20:00etara, gehienez hiru ordutan egotera deitu dituzte herritarrak, «ahalik-eta jende gehienak hondartzez gozatu ahal izateko».

Gainera, segurtasun distantzia haretan mantentzeko eskatu dute, eta eguzkitako aukiak, hamakak edota koltxonetak ez eroteko gomendioa egin dute.



Jende pilaketarik ez egoteko eta denek hondartzaz gozatzeko neurriak dira, eta hiru okupazio maila bereizi dituzte: berdea, anbar-kolorea eta gorria. Banderak hondartzan lekua dagoela adierazten du; anbar kolorekoak hondartza nahikoa beteta dagoela, eta gorriak hondartza beteta dagoela.

Lagundutako zerbitzua

Gainera, *Hondartza Denontzat* lagundutako bainu zerbitzua martxan jarriko dute bihar, Mundakako Laidatxu hondartzan, Lekeitioko Isuntzan eta Ondarroako Arrigorri. Abuztuaren 31ra bitartean eskainiko dute zerbitzua. COVID-19aren prebentzio eta kontroleko araudi orokor eta espezifikotara egokituta egongo da.

21 begiralek zainduko dute zerbitzua, 11:00etatik 19:00etara bitartean, eta zerbitzu guztiak, garraio zerbitzuak barne, urtero bezala ematen jarraituko dira.

Hondartzaz hondartza

ARITZA ETA MOLLAPOZU (EA)

- Mollapozu hondartza eta moila gune dinamikoak dira; busti eta bainatu ahaliko da, baina ezin da bertan etzanda egon.
- Ezin da Eskolondotik Kaira bizikletaz joan.
- Moilako sarbidea eta irteera arautuz, eskailerekin norabide bakarreko erabilera daukate (zintekin adierazita dute).

LAIDA ETA LAGA (IBARRANGELU)

- Hondartzen sarrera eta irteerak bereizi eta mugatu dira, jendea ez gurutatzeko eta pilaketak saihesteko.

- Jendea pasatzen den lekuetan eta jende gehien egoten denetan zirkulazio noranzkoak zehaztu dituzte.
- Komunetan sartzeko eta itxaroteko guneak zehaztuta daude.

ISUNTZA (LEKEITIO)

- Erabilera dinamikoa izatea gomendatzen dute; erabiltzaileak harean etzanda egon ahal izango dira, beti ere aforoaren baldintzak betetzen badira.
- Parkeko horman dagoen aldean erabiltzaileak ibiltzeko prestatutako den eremua erabiltzea gomendatu dute, «segurtasun tarteak mantendu ahal izateko».
- Ez da gomendatzen hozkailuak, uretako koltxonetak eta antzekoak erabiltzea, baina eguzkitakoak era-

- bili daitezke. Behar dutenek hondartzarako aukiak eroan ahal dituzte.
- Parkeko karakoleko eskaileretako sarrera itxita dago denboraldia hasi zenetik.

KARRASPIO (MENDEXA)

- Erabilera dinamikoa proposatzen da, eta hareatzen etzanda egon ahal da, beti ere aforoaren baldintzak betetzen badira.
- Ez da gomendatzen hozkailuak, uretako koltxonetak eta antzekoak erabiltzea, baina eguzkitakoak erabili daitezke. Behar dutenek hondartzarako aukiak eroan ahal dituzte.
- Erabiltzaileak ibiltzeko pasabidea prestatu dute, eta dutxetara eta iturrietara joateko hura erabiltzea gomendatu du udalak.

ARRIGORRI (ONDARROA)

- Asteburuetan eta jai egunetan, marea goian dagoenean, hondartza dinamikoa izango da Arrigorri; bainuak eta paseoak bakarrik baimenduko dira.
- Hondartza dinamikoa izango da, gainera, marea gora egon aurreko eta ondorengo ordu eta erdian ere.
- Sarrera eta irteerak lurreko marrak jarraituta egin behar dira.
- Bizikleten aparkalekuak lekuz aldatu dituzte, oinezkoen artean bizikletaz ibiltzea saihesteko.
- 12:00ak arte udal udalekuak eta ikastaro bereziak egingo dira hondartzan.
- Baimenduta daude igeriketa, piraguak, paddle surf...

SATURRARAN (MUTRIKU)

- Asteburuetan eta jai egunetan, marea goian dagoenean, hondartza dinamikoa izango da; bainuak hartzea eta paseoak ematea egongo da bakarrik onartuta.

PORTUKOA (MUTRIKU)

- Asteburuetan eta jai egunetan, marea goian dagoenean, hondartza dinamikoa izango da; hau da, bainuak eta paseoak bakarrik egongo dira onartuta.

HONDARBELTZ (MUTRIKU)

- Asteburuetan eta jai egunetan, marea goian dagoenean, hondartza dinamikoa izango da; bainuak eta paseoak bakarrik egongo dira onartuta.

Isuntza hondartza · **LEKEITIO**

ISO ziurtagiria · Herrigunean bertan dago, autobusaren geroalekutik 15 minutura



ZERBITZUAK

- KOMUNAK
- DUTXAK
- HONDARTZAINAK
- SOROSLEAK
- LAGUNDUTAKO BAINU ZERBITZUA
- MEGAFONIA
- UR KIROLAK
- BIZIKLETAK UZTEKO TOKIA
- PARKINAK:
 - P1 Arropainen: 30 KARABANA 200 AUTO
 - P2 Gernikako bidean: 160 AUTO
 - P3 Gernikako bidean: 125 AUTO
 - P4 Gernikako bidean: 14 AUTOBUS

NOLA HELDU AUTOBUSEZ

- LURRALDE BUS **DONOSTIA - LEKEITIO**
DB03 LINEA
- BIZKAIBUS **BILBO - LEKEITIO**
A3512 – A3513 – A3523

TURISMO BULEGOA

Independentzia enparantza. 94-684 4017
turismo@lekeitio.eus

 **lekeitioturismo.eus**



Karraspio hondartza · **MENDEXA**

ISO ziurtagiria



ZERBITZUAK KARRASPION

- KOMUNAK
- DUTXAK
- ITURRIAK
- HONDARTZAINAK
- SOROSLEAK
- MEGAFONIA
- UR KIROLAK
- AISIALDIRAKO GUNEA
- BIZIKLETAK UZTEKO TOKIA
- PARKINA [TAO ZERBITZUA: 10:00 - 20:00]
- TABERNAK: Laperri, Patxon, Metrokua
- HOTELA: Metrokua

ZERBITZUAK KARRASPIO TXIKIN

- KOMUNAK
- DUTXAK
- SOROSLEAK
- UR KIROLAK
- BIZIKLETAK UZTEKO TOKIA

NOLA HELDU AUTOBUSEZ

- LURRALDE BUS **DONOSTIA - LEKEITIO**
DB03 LINEA
- BIZKAIBUS **BILBO - LEKEITIO**
A3512 – A3513 – A3523

INFORMAZIO+

www.mendexa.net



**MENDEXAKO
UDALA**



MUTRIKUKO HONDARTZAK

Saturraran, Ondarbeltz eta Portuko hondartza prest daude udazaleak jasotzeko



SATURRARAN

- KOMUNAK
- DUTXAK
- ITURRIAK
- ALDAGELAK
- SOROSLEAK
- LAGUNDUTAKO BAINU ZERBITZUA
- MEGAFONIA
- UR KIROLAK
- AISIALDIRAKO GUNEA
- KANPINA
- TABERNAK
- APARKALEKUA



ONDARBELTZ

- KOMUNAK
- DUTXAK
- ITURRIAK
- SOROSLEAK
- UR KIROLAK
- AISIALDIRAKO GUNEA
- TABERNA
- APARKALEKUA



PORTUKO HONDARTZA

- HERRIGUNEAN
- BI IGERILEKU NATURAL
- KOMUNAK
- DUTXAK
- SOROSLEAK
- LAGUNDUTAKO BAINU ZERBITZUA
- MEGAFONIA
- UR KIROLAK
- TABERNA
- APARKALEKUA

NOLA HELDU AUTOBUSEZ

- LURRALDE BUS **DONOSTIA - LEKEITIO** DB03 LINEA
- LURRALDE BUS **900-30 03 40**
MALLABIA - ONDARROA
ZUMAIA-ONDARROA
SORALUZE-ONDARROA

TURISMO BULEGOA

Txurruka plaza z/g
943-60 33 70

www.mutriku.eus



**MUTRIKUKO
UDALA**

Arrigorri hondartza · **ONDARROA**

ISO ziurtagiria · Herrigunean bertan dago, autobusaren geralekutik 5 minutura



ZERBITZUAK

- KOMUNAK
- DUTXAK
- ALDAGELA EGOKITUA
- ITURRIAK
- HONDARTZAINAK
- SOROSLEAK
- LAGUNDUTAKO BAINU ZERBITZUA
- MEGAFONIA
- UR KIROLAK
- AULKI ETA HAMAKEN GORDELEKUA
- HONDARTZAKO SARRERAN:
MOTOENTZAKO APARKALEKUAK
BIZIKLETEN APARKALEKUA
EZINDUENTZAKO APARKALEKUAK

NOLA HELDU AUTOBUSEZ

- LURRALDE BUS **DONOSTIA - LEKEITIO** DB03 LINEA
- BIZKAIBUS **BILBO - ONDARROA**
A3915 — A3916 [Ermutik eta Durangotik]
- LURRALDE BUS **900-30 03 40**
MALLABIA - DEBA - ONDARROA
ZUMAIA-ONDARROA
SORALUZE-ONDARROA

TURISMO BULEGOA

Erribera, 9 [Zubi Zaharraren alboan]
tel. 94-683 19 51
www.ondarroa.eus
www.udalbarriak.eus



**ONDARROAKO
UDALA**



Aritza hondartza · **EA****ZERBITZUAK**

- KOMUNAK
- DUTXAK ITXITA
- HONDARTZAINAK
- SOROSLEAK
- MEGAFONIA
- UR KIROLAK
- BIZIKLETAK UZTEKO TOKIA
- PARKINA Lekeitiorako bidean
- TABERNA

NOLA HELDU AUTOBUSEZ

- BIZKAIBUS **BILBO - LEKEITIO**
A3512 – A3513

**EAKO
UDALA**Laida eta Laga · **IBARRANGELU***Laidako hondartzak 812 metroko luzera du eta Lagakoak 574 metrokoa***ZERBITZUAK**

- KOMUNAK. (10:00etatik 20:00arte) Maskarekin sartu behar da.
- DUTXAK ITXITA uztailearen 1era arte gutxienez
- ITURRIAK ITXITA uztailearen 1era arte gutxienez
- HONDARTZAINAK
- SOROSLEAK
- MEGAFONIA
- UR KIROLAK: windsurfa, piraguismoa, paddle surfa eta bela
- KANPINA Laidan
- APARKALEKUA
- TABERNAK

NOLA HELDU AUTOBUSEZ

- BIZKAIBUS **MUNGIA - GERNIKA-LUMO - IBARRANGELU** A3526 LINEA
Ordu erdiro uztailean eta abuztuan

INFO+

ibarrangelu.eus

**IBARRANGELUKO
UDALA**



Mendexa Abentura Parkeak 17 tirolina eta 70 erronkatik gora eskaintzen ditu. COVID-19 dela eta, garbitasun neurri guztiak hartu dituzte, eta alde aurretik deitzea eskatu dute hitzordua hartzeko.

Neurriko eskaintzak Mendexan

Bizkaiko kostaldeko ekialdean kokatuta, mendiaz zein itsasoaz gozatzeko aukera eskaintzen du Mendexak; zuzenean naturagaz lotutako eskaintzak dira nagusi Mendexan.

Herrigunea mendi tontorrean kokatuta dago (Zelaia auzoa). Baina beste hiru auzok ere osatzen dute herria: Li-koa, Leagi eta Iturreta. Auzo batean zein bestean, baserri eder ugari aurkituko ditu bisitariak. Tartean Likona baserria, XVI. mende hasierakoa; Mendexako baserri zaharrena da. Baina dorretxeak ere baditu, Leagi, esaterako.

Lea ibaiaren albo batean koka-

tzen den Karraspio hondartzak ere askotariko aukerak eskaintzen ditu. Lasai egoteko zein itsasoaz lotutako ekintzak egiteko aukera eskaintzen dute bertan, surfa, esaterako. Hondartzak San Nikolas edo Garraitz uhartea dauka aurrez aurre, eta Lekeitioko portua ere ikusten da. Mendi eta zelai berdez inguratuta dagoen hondartza zabal, luze eta ederra da.

Oinezkoentzako ibilbidea

Lea Ibilbidea ere Mendexan hasten edo

amaitzen da; 23 kilometroko bi-deak Munitibarreraino eramango du bisitaria. Ibilbidea 1555. urtean eraiki zuten Marierrota itsas errotaren dikearen eta ur biltegiaren parean dago.

Itsasoa edo ibaia albo batera utzita, azken urteetan bestelako eskaintza ere badauka Mendexak: Mendexa Abentura Park. Euskal kostaldeko abentura parkea Leagi auzoan dago kokatuta, eta 70 erronka baino gehiago eta 17 tirolinadun 4 zirkuitu eskaintzen ditu.

Parkea adin guztiei zuzenduta dago, eta zuhaitzez zuhaitz ibiltzeko aukera eskaintzen du berrikuntzaz betetako ibilbideetan barrena.

Garbitasun protokoloa

Garbitasun neurri guztiak betetzen ari dira Mendexa Abentura Parkekoak. Horiez gain, neurri batzuk betetzea derrigorrezkoa dela azpimarratu dute: aforoa zaindu asmoz, alde aurretik deitu behar da hitzordua hartzeko. Zirkuituak maskara barik egin daitezke, baina COVID-19a dela eta, azalpenak entzuteko orduan edo taldean dandean, derrigorrezkoa izango da maskara jartzea –norbanako ariketak maskara barik egin daitezke zirkuituetan–.

MENDEXA ABENTURA PARK

ZIRKUITUAK

Yoko zirkuitua.

- Erreferentzizko adina: 4-8 urte.
- Altuera: gutxienez 1,10 metro.
- Zirkuitua: 15 erronka [hiru tirolina]

Zirkuitu berdea.

- Erreferentzizko adina: 9 urte [14 urtetik beherakoak lagunduta]
- Altuera: gutxienez 1,40 metro.
- Zirkuitua: 15 erronka [bost tirolina]

Zirkuitu urdina.

- Erreferentzizko adina: 12 urte [14 urtetik beherakoak lagunduta]
- Altuera: gutxienez 1,50 metro.
- Zirkuitua: 16 erronka [lau tirolina]

Zirkuitu gorria.

- Erreferentzizko adina: 15 urte [16 urtetik beherakoak lagunduta]
- Altuera: gutxienez 1,50 metro.
- Zirkuitua: 21 erronka [bost tirolina]

ESKaintza bereziak

Familian. 4 urtetik aurrerako umeak dituzten familientzako eskaintza. Eskaintza berezia 13 urtera arte eta hiru lagunetik gorako familientzat, guztientzako prezio berdinarekin.

Urtebetetze jaia egiteko aukera.

Ume, gazte zein nagusien urtebetetze egun bereziak ospatzeko eskaintza.

Opari txartelak.

Naturagaz gozatzeko opari originala egiteko aukera.

Ezkondutako aurreko agur jaia.

Naturan barneratuta agur jaia originalak egiteko eskaintza zabala.

Gazte taldeak. Gazte taldeentzako abentura, udaleku edota kanpaldientzat osagarri aproposa.

Ikasle taldeak. Asialdia eta formakuntza eskutik: Abentura naturan, tirolinak, tibeteko zubiak, rokodromoak...

KONTAKTUA

Helbidea:
Leagi auzoa (Mendexa)
Telefono zenbakia: **688 85 62 83**
Posta elektronikoa:
info@mendexapark.com
Webgunea:
www.mendexapark.com



MENDEXAKO UDALA

Helbidea: Zelaia auzoa, 1
Telefonoa: 94-684 21 06
Webgunea: www.mendexa.net
Harremanetarako:
idaizkaritza.mendexa@bizkaia.org



1. Goikoportala



2. Alde Zaharra: Guenkalea



3. Zelaia



4. Mogelen oroigarria



5. Xemeingo Eliza



6. Hilerria



7. Uhagon Kulturgunea

Markina-Xemein, goizetik gauera

Lea-Artibai eskualdeko udalerrri honetan hainbat dira bisitariak ezinbestean ikusi beharrekoak. Hona hemen, ibilbidea goizean hasita eta iluntzeraino, egun pasa baterako proposamenak.

1. GOIKOPORTALA

Solartekua jauregia: 1666an Lucas Longak eraikitako eraikuntza barrokoa. Jauregia erabat berritu zuten, eta gaur egun udaletxea da. Mugartegi Jauregia izenaz ere ezagutzen da, familia honen bizileku izan zelako.

Karmengo eliza eta komentua: Komentua 1691koa da. Eliza 1724an eraiki zen, eta barroko karmeldarraren ezaugarriak ditu.

Iturria: 1787an eraikia, Ilustrazioaren ideiei jarraiki. Horietako batean Markina armaria dago margotuta, eta beste hiruretan Juan Antonio Mogel idazlearen bertsoak.

2. ALDE ZAHARRA

Guenkalean egingo dugu lehen geldialdia, bertan ondorengoak ikusteko:

Ansotegi jauregia: Jauregi bilakatutako dorrea. Jatorrizkotik Guenkaleara ematen duen aurreko aldea baino ez da gertatzen.

Antxia edo Ibarra dorrea: Jauregi bilakatutako harresi-barruko dorre hau 1630eko erroldan aipatzen da.

3. ZELAIA

Herriguneko arnagune nagusia. Zelaia-aren berdegune aparta eta bere inguruak aisialdirako leku pribilegiatuak dira. Egurdian Zelaia inguratzen duten terrazetan kafetxea hartzeko aukera dugu.

4. MOGELEN OROIGARRIA

Juan Antonio Mogel Xemeingo parrokoa izan zen euskarazko lehen eleberritzat hartzen den *Peru Abarka* lanaren egilea. Bere loba, Bizenta Mogel, euskaraz idatzi zuen lehen emakumea izan zen. Azken honen izena daraman parkea ere badago herrian. Ibilbide honetan, baina, Juan Antonioren omenezko eskultura bisitatu dugu.

5. XEMEINGO ELIZA

Markina-Xemeingo Parrokia. Euskadiko Monumentu Nazional aitortua, barruko handitasunean luxuzko erretaula erre-nazentista nabarmentzen da.

6. HILERRIA

1851an eraiki zen, eta Bizkaiko Obra Klasisisten artean onenetarikoa da. Barrua neoklasikoa da, eta elementu neogreziar eta neogipziarrez dago hornituta. Euskadiko Monumentu Nazionala da.

7. UHAGON KULTURGUNEA

Garai batean jauregia eta gerora kuartela izandakoa, egun kulturaren epizentroa da. Lorategi eta guzti, leku lasaia da bertan bazkaltzeko eta bidari berrekin aurretik indarrak hartzeko.

8. ARRETXINAGAKO ERMITA

Herriko harribitxia. Arretxinagak «harriak datzaten tokia» esan nahi du. Harri multzo hau berez sortua da, duela berrogei bat milioi urte gutxi gora behera. Egun ikusten duguna sei aldeko ermita xume bat da, 1740an harri handiok gordetzeko eraikia.

9. BARROETA DORREA ETA ERMITA

Arretxinagako San Migel basilizaren atzealdetik paseotxo emanek heltzen da Markinaldeko Merindadeko dorretxerik garrantzitsuenara.

10. UDAL ARRAINDEGIA

1858an herriko lixiba-putzuak zeuden egun Udal Arraindegia dagoen tokian. Neoklasiko estiloko iturri bat du ondoan.

11. 'UNI' FRONTOLIA

«Pelotaren Unibertsitate» moduan da ezaguna, zesta-puntako pilotari onenetakoen eskola izan delako. Zabalik egoten da goiz eta arratsalde, eta ostiral arratsaldez bagoaz, Zesta Eskolako kideen partidak ikusi ahal ditugu. Bisita gidatuak ere eskaintzen dira, aurretiaz lotuta (688 81 37 75).

12. KONTZEKUPEA

Udaletxea izandako eraikina 1521 eta 1542 bitartean eraiki zuten, eta Bizkaiko udaletxe zaharrena izan zen urte askoan. Azpian arkupe bat du, Oiz mendiko kareharriz eginiko zortzi zutabe barrokoko eusten dutena. Iluntze partean giroa egoten da berau inguratzen duten kaleetan. Egunari amaiera emateko, poteatzeko edo zerbait jateko aukera ugari ditugu inguruko tabernetan.

Informazio gehiago:

mxturismoa.eus

Bisita gidatuak:

<https://uhagon.com/bisita-gidatuak/>



8. Arretxinagako Ermita



9. Barroeta Dorrea eta Ermita



10. Udal Arraindegia



11. «Uni» frontolia



12. Kontzekupea

NON JAN?

Itsas-Lur jatetxea: Agustin Deuna Kalea, 4. 94-616 78 09

Vega: Abesua Kalea, 2. 94-616 75 28.

Uhagon (enkarguz): Xemein Etorbidea, 10. 665 21 26 89

TABERNAZ TABERNA

Alde Zaharrean, bereziki Guenkalean eta Zeharkalean. Trago bat hartzeko edo bokata/plater konbinatuak jateko aukera zabala dago.

NON LOEGIN?

Intxauspe landetxea

Atxondoa Auzoa, 10.

652 77 08 89 / 658 75 86 17

casarural.intxauspe@gmail.com

Satzu landetxea

Ubilla-Urberuaga Auzoa 37.

94-616 97 02 satzu.landetxea@gmail.com



Peñanekua Plaza, 1 • 94-616 64 32 • www.etxebarria.biz

ETXEBARRIKO UDALA



Artibai erreka-reñ jaiotzañ... Etxebarri!



ANTSOTEGI
HOTELA • JATETXEA

Altza auzoa, 15 • Antsotegi errota

94 616 91 00
www.antsotegi.com



IRIBIDE
TABERNA

Erribera, 3
94-616 65 50



Olaia
jatetxea

Altzibar auzoa
94-616 63 94



OTSOLO
taberna

Erbera, 10
94-616 96 90



TXOMIN
PENTSIOA

Erbera, 12
94-616 82 22



Kulturaren mapetan... ZIORTZA-BOLIBAR

ko udala

www.ziortza-bolibar.com

udala@ziortza-bolibar.com

"Simón Bolívar museoa" 94 616 41 14

Gizarte langilea tel. 94 616 57 27

tel. 94 616 57 27

fax. 94 616 40 16





Lasaitasuna arnastu eta sentitu daitekeen ingurune naturalean dago Aulesti, eta inguruko naturarekin gozatzeko gonbitea egiten du. Horren adibide dira bertatik pasatzen den Lea Ibilbidea zein Urregarai eta Illunzar mendiak.

Gailur zein magalean ere ederra

Lea Ibarra osatzen duten udalerrietan handiena eta populatuena da Aulesti. Markina-Xemein, Lekeitio eta Gernika-Lumoren artean kokatuta, Iluntzar eta Bedartzandi mendiek zaintzen dute herria.

Ingurune menditsuan, ibilbide eta mendi txango interesgarriak eskaintzen dizkie Aulestik bisitariei. Lea ibilbidea bertatik igarotzen da. Gerrikaitzerantz edo Mendexako Karraspio hondartzara zein Lekeitiora joateko bidegurutzera murgilduz gero, basoan sartu eta Lea ibaia- ren ondotik kilometroak egiten hasteko aukera ematen du.

9 kilometro dira Gerrikaitz eta Aulesti artekoak, eta 14 Mendexaraino daudenak. Bidea leuna da kostako herriraino, eta ibilbidean, Gizaburuagan eta Oletan geldialdiak egiteko aukera paregabea ematen du.

Aulestitik Gerrikaitzera joanez gero, bestalde, malda han-

diagoa du bideak, 100 metro inguruko desnibelarekin. Hala ere, eroso egiteko modukoa da. Batera zein bestera eginez gero, naturaz gozatzeko aukera ziurra da Lea Ibarreko ibilbidea.

700 metrora

Ikuspegi ederrak eskaintzen dituzten mendi tontorrek ere baditu Aulestik inguruan. Bi dira ezagunak: Urregarai (Santa Eufemia legez ere ezagutzen dena) eta Illunzar.

Aulestitik bertatik igo daiteke Urregarai mendira (704m), eta ostera herrira bueltatu. 14 kilometroko ibilbide zirkularra da, 4 ordu eta erdian egiteko modukoa. Osteratxo luza gura duenak Bedartzandatik igo dezake Urregarai, Aulestira

bueltatzeko gero. Mendi tontorrean, Santa Eufemia ermitaren ondoan, paisaia benetan ikusgarri da: Urdaibaiko itsa-sadarra, Bizkaiko eta Gipuzkoako kostaldea, Durango inguruko mendiak eta Gipuzkoako mendirik altuenak ere ikusi daitezke egun argiarekin.

Beherago, Santa Eufemiako zelaian atsedean hartzeko aukera ematen du inguruneak, eta familian zein kuadrillan egun pasa egiteko leku egokia da zelai horretan dagoen Atxagarai aterpetxea.

Iraileko hitzordua

Aulestiarrentzat egun berezia izaten da irailaren 16a, Santa Eufemi egunez, oinez zein ibilgai- luetan bertara igotzeko tradizio-

ari eusten baitiote. Topaleku kuttuna da, beraz. Ermitara Igoera mendi lasterketa, Irrintzi Txapelketa, erromeria, jan-edana... osagai guztiak batzen dira bertan jai giro ederra sortzeko.

Beste alde batetik, Illunzar (726m) mendia ere ezaguna da Bizkaian, eta Aulestitik bertatik igo daiteke. Narea auzotik (270m) Illunzar tontorrera heltzerainoko igoera gozatzekoa da mendizaleentzat. Gailurra ordu bete eta erdian egiteko modukoa da. Bizkaiko kostaldeko tontorrik gailenetakoa denez gero, goi-goitik era-kusten duena ikusteko modukoa da.

Aulestira bueltan, bertako parkeak bainua hartzeko, jolas-teko eta atsedean hartzeko aukera ematen du.

Lasai egon eta naturaz gozatzeko gonbita egiten du Aulestik. Etorri, probatu eta gozatu! Itzuliko zara!



AULESTIKO UDALA

Helbidea: Donibane enparantza, 1
Telefonoa: 94-627 90 06
Faxa: 94-627 91 17
E-maila: idazkaria@aulesti.eus
Webgunea: www.aulesti.eus

ARTEDRAMA TOPAKETA, IRAILEAN

Euskal Herriko arte eszenikoen amaraunean ezaguna da Aulesti. Artedrama Euskal Laborategiak (ADEL) sortzaileen eta publikoaren agendan finkatu ditu udalerria eta Pazko Astea. Aurten, baina, osasun krisiaren ondorioz, apirilean ezinezkoa izan da topaketa egitea, eta, horrenbestez, irailerako jarri dute hitzordua. Iragarri dutenez, irailaren 21etik 26ra egingo dituzte ikastaroak eta emanaldiak. Horrela, beste behin ere, sormen usaina eta zaporea darion kultur astea hartuko du Aulestik.



NON JAN?

Iruzubi txiringitoa:

Helbidea: Aulestiko parkea.

Mariano jatetxea:

Helbidea: Aulestia kalea, 48.
Telefonoa: 94-627 90 24.

Ubilla Aterpetxea:

Helbidea: Aulestia kalea, 4.
Telefonoa: 94-627 93 79.
Helbide elektronikoa:
ubilla.aulesti@gmail.com.

Zarrabenta jatetxea:

Helbidea: Aulestia kalea, 34.
Telefonoa: 94-627 90 04.

NON LO EGIN?

Ubilla Aterpetxea:


Helbidea: Aulestia kalea, 4.
Telefonoa: 94-627 93 79.
Helbide elektronikoa:
ubilla.aulesti@gmail.com.

Atxagarai Aterpetxea:

Helbidea: Urregarai zelaian.
Telefonoa: 94-627 90 06.
Helbide elektronikoa:
alkatetza.aulesti@bizkaia.org

Munitibar

NATURA | KIROLA | KULTURA | GASTRONOMIA



ERASOEN AURREAN
EZ ISILDU!



Naturaz eta mendizaletasunaz gozatzeko asmoa dutenek aukera bikaina aurkituko dute Arratzu, Nabarniz eta Gautegiz Arteaga moduko herri txikietan. Bertako ibilbideek altxor historiko handiak gordetzen dituzte.

Urdai bain barrena pausoz pauso

Herriak ezagutzeko aukera ezin hobea ematen dute ibilbideek. Herrien historia, kultura, nortasuna, gastronomia... ezagutzeko aukera paregabea. Busturialdeko bihotzean kokatuta dauden Arratzu, Nabarniz eta Gautegiz Arteaga herri txikiek ere badituzte mendian gora eta behera ibiltzeko ibilbideak; iraupen zein zailtasun desberdinetakoak.

Herri txikia da Arratzu, baina auzo desberdinetan leku interesgarri asko eta asko ditu. Ibilbide bat eginez, herria ezagutzeko aukera ematen dute. Erreka ondoko haranetik edo mendian barneratuta ibiltzeko aukera eskaintzen du Arratzuk. Herria ezagutzen hasteko ibilbidea Artzubi Erdi Aroko zubian hasten da -zubiaren erdian dauka muga Mendatagaz-. Mea eta burdina ateratzeko lekua izan zena, gaur egun inguru hori ipuinetako lekua da. Hortik sartzen dira Arratzura, gainera, Donejakue bidea egitera doazenak. Zubitik igarota, harizti handienetako bat zeharkatuta, Elexalde auzora heltzen da ibilbidea.

Elexalden dago XVI. mendeko Santo Tomas eliza, tontorrean. Lehenago bertan zegoen beste baten gainean eraikita omen dago. Elizpe deigarria dauka, eliza osoa inguratuta. Ondoan dago kanposantua, Gandarias familiaren hilobi dotoreagaz. Inguru horretan amaitzen da galtzada ere, eta hortik egiten da gaur egun ere Aste Santuko kurrubidea.

Hurrengo auzoa Loiola da, egungo herriaren bihotza; bertan daude zerbitzu guztiak bateratuta: udaletxea, herriko taberna, plaza, frontoia... Bertan dago Gandarias familiaren aztarna erakusten duen etxea eta eskola, Bastidak diseinatutakoa. Eskola, gaur egun, kultur ekintzarako erabiltzen da, eta bertan dago Arrolako *Oppidum*-aren interpretazio zentroa ere.

Gorantza joanda, Gorozikara iristen da ibilbidea. Auzoan gora dago Santa Mariñe basiliza. Barroeta igaro eta Belendizegaz topo egiten du ibilbidea. Auzo bat den arren, herri baten nortasuna eduki izan ohi du beti. Basiliza, dorrea plaza... daude bertan, bai eta Dolaretxe baserria eta Manuel Leginetxe zenaren jaiotetxea ere.

Zabala auzotik, ondoren, San Lorentzo basiliza dagoen tontorreraino iristen da ibilbidea. Uda sasoiaren erromeria ederra egiten dute. Gero, Elorriatik Barrutira iristen da. Hor ere dorre bat dago, hirugarrena. Oraindik ere leihotsuak eta egitura bereziak agerian dituzte. San Emeterio eta San Zeledonoren basiliza ere badago Barrutian, herriz Arratzu baina elizaz Kortezubi bada ere. Gaur egungo eskola eta institutua ere han daude.

Bidegorriari jarraituta, Olesko auzotik Uarkara helduko gara; harri bolkanikoak ikus daitezke han. Ibilbidea Loiolan amaitze-

ko, bidez bide, kiwi-sailetatik doa. Espainiako Estatuko kiwi ekoizle handienetakoa da Arratzu. Loiola iritsi aurretik, bidean dago San Pedro basiliza ere.

Ibilbidean barrena, baserri handiak ikus daitezke, ortuekin. Arratzuko baserrietan ortua landu izan dute, eta gaur egun ere lantzen da; ondo baino hobeto dakite hori Gernikako astelehenetako azokan. Astoekin lehenengo, bizikletan gero, eta orain autoekin, joan-etorri ugari egiten dituzte arratzuarrek Gernika-Lumora.

Errotara bidea

Nabarniz Busturialdeko bihotzean dagoen beste herri txikitxo bat da; itsaso mailatik 360 metrora dago. Natura da Nabarnizko protagonista nagusia. Berdez jantzten den eta tontorrez inguratuta dagoen lur eremu esanguratsua hartzen du herriak.

Ibilbide asko eta asko eskaintzen ditu. Herrigune nagusia eta inguruko auzoak elkartzen dituzten ibilbide asko egin daitezke Nabarnizen, eta horietako askok herriko gailurretara iristen dira: Iluntzar (728 m), Galarregi (602m) eta Arrola (532m).

Baina Nabarnizek gailurrak baino gehiago dauka. Esaterako, antzina herrian egiten zuten errotara bidea egin daiteke gaur egun ere. Nabarniztarrak Omarko haranera joaten ziren antzina, Omarko erreka ertzean dagoen errotara, Goikoleara, hain zuzen ere. Goikolea errota duela gutxira arte egon da martxan. Bertan ehotzen zuten herriko goiko auzoetan bildutako artoa eta garia. Gainera, Nabarnizerako argindarra



Mendatatik Arratzura sartzeko Artzubi zubia. OIHANA CABELLO ELORRIAGA



Duela gutxira arte martxan egon da Goikolea errota. HITZA



San Migel basilizatik doa Nabarnizko errotara bidea. N.U.



Ihitzetako Ibilbidea igarotzen den toki bat. GAUTEGIZ ARTEAGA TURISMO

ekoizten zuen, eta hainbat makina-erreminta martxan jartzen zituen.

Aipatu ibilbidea da, gaur egun, Omako haranera ate irekia, bai eta ere eskualdeko konektibitate ardatz garrantzitsua.

3 kilometro eta 500 metroko ibilbide lineala da, eta 300 metroko gehieneko malda dauka. Ordu batean egiteko ibilbidea da errotara bidea, eta Elexaldetik

abiatzen da. Omako haranera bidean, edertasun handiko artadia zeharkatzen du ibilbideak, eta ibilbide zaharraren galtzada ikus daiteke, besteak beste.

Behin Oman egonda, PR-BI 180arekin bat egiteko aukera ematen du errotara bideak, eta bidea jarraituta, Omako baso margotura iris daiteke; egun, hala ere, zarratuta dago.

Baso eta padura artean

Interesgune bat baino gehiago ezkututzen ditu Gautegiz Arteagak. Bertara datorren bisitariak ondo egokituta eta tresna digitalizazioz seinalizatuta dauden mendi ibilbideak egiteko aukera edukiko du.

Hain zuzen ere, mendi ibiltaritza eta turismo aktiboa gustuko dutenek aparteko eskaintza aurkituko dute Urdaibaiko bihotzean. Guztira, baso eta padura artean distantzia eta zailtasun maila ezberdinetako sei ibilbide proposatzen dizkiete naturaz goatzera eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren ekosistema hurbiletik ezagutzera datozenei.

Testuinguru pribilegiatu horretan, Gautegiz Arteagako ibil-

bide sarea osatzen duten sei ibilbideak oso baliotsuak dira paisaiari eta ondareari dagokionez. Horietako batzuk, gainera, Ihitzetako Ibilbidea edo Jentilen Ibilbidea deiturikoe, familientzako guztiz egokiak dira, oinez egin ahala, inguruarekin gozatzeko.

Ihitzetako Ibilbideak, esaterako, 5 kilometro pasatxoko luzera du, leuna eta anitza da, eta Zelaieta auzotik hurbil dago. Zelai, baserri, etxebizitzaren hiri-gunea eta Urdaibaiko padurarik ederrenean zeharkatzen duen paseo lasaia da. Urdaibai Bird Centerretik igarotzen da, eta bideak hegaztien beste bi behatoki txikietara hurbiltzen ditu bisitariak. Jentilen Ibilbideak, oster, ia 8 kilometroko luzera du, eta Artadiko ibilbidearekin zati bat partekatzen badu ere, laburragoa da. Artadi Kantauriarren aberastasun botanikoa ezagutzeko proposa da. Hagin ale ederrak aurkitu dai-

tezke bidean, baso horren adierazgarri.

Gautegiz Arteaga-Martin Deuna-Atxerreko San Pedro eta Mendi Martxa Ibilbideak luzeraz nahikoa luzeak badira ere, erraz egitekoak dira, sasoi onean egon ala ez, edozeinek egiteko moduko bideak dira.

Lehen proposamena aukeratzenean 16 kilometroko ibilbidea egin dezakete

Kantauriar Artaditik zehar; Urdai-
baiko paisaia eta biodibertsitatearen ekosistema adierazgarria da z u h a i t z mota hori. Txoko misterio-
tsuz betetako paseoa da, bertan kareharrari, goroldio, iratze eta artadi kantauriarrak era askotariko itxura apatatsuekin bat egiten dute. Guztia itsasadarren gainera agertzen den talaian Atxarreko San Pedro buru delarik.

15 kilometroko luzera du bigarren proposamenak. Urtero irai-

lean antolatzen den mendi martxan du jatorria.

Mendi ibilbide zailagoak gustukoagoak dituztenek, azkenik, San Migel Eroñozar eta Tremoia-Iruskietan San Pedro Atxarre egin ditzakete. Lehen proposamena aukeratzenean 7 kilometroko ibilbidea egin dezakete. Zelaieta auzotik ibilbide aldatutik igo, eta artaditik barrera bete-betean igo ondoren, Eroñozarreko tontorrera helduko da bisitaria. Bertaratzen direnek Mikel Deunaren baselizarekin topo egingo dute. Begiratoki eder honek Urdai-
baiko paduren gainaldeko aparteko bistak eskaintzen ditu mendebaldetik, eta Oma harana ikus daiteke ekialdetik. Tremoia-Iruskietan Atxarreko San Pedro ibilbideak, berriz, 5 kilometro pasatxo badi-tu ere, eskarmentudun mendizaleentzako dago gomendatua. Tremoia-Aldamiz parean hasten da, eta Arteaga-Kanala-Martin Deuna-Atxarreko San Pedro ibilbidearekin batzen da. Horretarako, Landazabal atlantikoa eta artadia zeharkatzen ditu, Tremoia moduko landa gune bixietatik igaroz.

Herrigunea zein auzoak eta horien historia ezagutzeko ibilbidea daukate arratzuarrek

Antzina nabarniztarrek egiten zuten errotara bidea egin daiteke gaur egun ere

Mendi ibiltaritza eta turismo aktiboa gustukoa dutenek eskaintza zabala dute Gautegiz Arteagan



ARRATZUKO UDALA

Loiola Auzoa, 2
Tf.: 94-625 68 84
Faxa: 94-625 54 04
Udala.arratzu@bizkaia.org
www.rratzu.eus



NABARNIZKO UDALA

Elexalde auzoa, 2
Tf.: 94-625 50 77
Faxa: 94-625 65 12
www.nabarniz.eus



GAUTEGIZ ARTEAGAKO UDALA

Herriko Enparantza, 1
Tf.: 94-625 29 53
udala.gautegiz@bizkaia.org
www.gautegizarteaga.com



Begiak itxi eta lasaitasuna arnastu daiteke. Urdaibai itsasadarrean, Erreserba Biosferan bertan, Busturialdeko eta Bizkaiko industriaren aitzindaria da. Xarma berezia dauka Muruetako Teileriak, eta bertan egon denak ezingo du horrelakorik ukatu.

Naturgune ezkutua da, eta ezagutzen ez duenarentzat aurkitzeko modukoa, dudarik gabe. Muruetako Teileria jatorria XV. mendearen aurretik kokatu behar da, eta buztintzarekin dago lotuta. Lantegi berria 1892. urtean sortu zen: *La Estrella*. Berau izan zen Urdaibaik ezagutu zuen lehenengo fabrika. Geroago, akziodunak aldatu eta Aurrea S.A. izena hartu zuen.

Leku horrek ezagutu duen azken enpresak Ceramics de Murueta izena zuen, 1934. urtean sortu eta 1973. urtean itxi zutena. Zeramika lantegiak lehortehiak, biltegia, makineria mekanikoa, tren sarbidea, moila eta buztina bagoitxoetan garraiatzeko pasarela biltzen zituen. 1.500 metro koadroko lursaila, gaur egun aisialdi gune bihurtuta dagoena.

Industriaren historia

Lantegia zenaren aztarnak badaude gaur egun oraindik: tximinia eta labeak ikusiko ditu bisitariak, historiaren lekuko, gaur

1.500 metro koadroko lursaila hartzen du Teileriak, egun aisialdi gune dena

Naturgune ezkutua Urdaibaiko itsasadarrean

Muruetako Teileria mendeetako historia gordetzen duen aisialdi gunea da; gorago dagoen Harrien Parkea monumentu gunea bertoko zuhaitz eta landarez inguratuta dago.

egun oraindik tinko mantentzen direnak.

Busturialdeak bizi izan zuen Industria Iraultzaren ikur da antzinako Teileria. Industrializazioaren testigantza ezin hobea jasoko dute bisitariak hango aztarnetatik. Urdaibai Biosfera Erreserban, jardun ekonomikoaren ondare historikoa gordetzen duen lekua da.

Kantabriako eta Asturiasko beharginak Muruetara etortzen ziren, egin behar zen eginkizunerako prestatutako langileak. Egurikatzak erabiltzen zuten hasiera batean. Baina gero, Asturias eta Leondik

ekartzen zuten harrikatza, trenen zein itsasontziz. Lantegieta lehen elektrifikazio eredueta ko bat ere izan zen.

Gorago, Harrien Parkea dago. Lasaigune horretan ere atseden hartu dezakete herritar zein bisitariak. Gune naturala izanik, turismo jasagarria bultzatu nahi du Muruetako Udalak bai Harrien Parkean zein Teilerian. Horretarako, garbitasuna eta ingurumena zaintzeko erraztasunak eman nahi ditu, zaborrontziak ipinita.

Ibilbideak

Bilbo-Bermeo bidetrenan egiten dutenek leihotik ikusi dezakete




Muruetako Teileria. Berdegune horretara errepidetik zein oinez heldu daiteke.

Izan ere, Gernika-Lumotik eta Busturitik badaude hainbat ibilbide lagunartean zein familian txangoak eta egunpasak egiteko egokiak eta erakargarriak direnak. Pedalkadaka ere hel daiteke bertara, oinezkoek egin dezaketen bide berbera bizikleta gainean eginda.

Gernika-Lumotik bost kilometro eta erdiko ibilbidea egin dezakete herritarrek, Muruetako

Teileriaraino. Behin Teileria helduta, gorago dagoen Harrien Parkean otordua egiteko tartea hartu daiteke. Indarrak bildu ostean bideari jarraitu gura diotak, beste 2,3 kilometro izango ditu Busturiko San Kristobal auzora. Gernika-Lumotik Busturira egin bezala, Busturitik Gernikara ere egin daiteke irteera.

Eleizaldetik, bizikletan edo oinez joateko gomendioa egin du udalak, ingurunearekin gozatuz horrela. Autoek Larrabe auzotik sartu behar dute.



MURUETAKO UDALA

Helbidea: Kanpantxua 3.
Telefona: 94-625 24 51/ 688 886 163
Posta elektronikoa:
udala.murueta@bizkaia.org
Webgunea: www.murueta.es



IBARRANGELU

**Disfrutatu
Ibarrangeluko hondartzetaz!
Izan solidarioa
eta zaindu natura**

- Bandera anbar dagoenean utzi lekua besteei
- Bi metroko neurriak gorde • Komunera maskara eraman
- Ez utzi zaborrik hondartzetan • Erabili garraio publikoa



ARKETA KANPINGa, Urdaibaiko bihotzean

Lea Ibarra

www.leaibarra.eus

munitibar-aulesti-gizaburuaga-amoroto-mendexa



MENDEXA

-  **KABIA.**
Zelaia auzoa • 94-606 18 08
-  **LAPERRI TXIRINGITOA.**
Karraspio hondartza • 653 744 577
-  **LEAGI JATETXEA.**
Leagi auzoa • 94-684 23 52
-  **MAHAIGANEKO.** Zelai auzoa
-  **METROKUA TABERNA.**
Karraspio hondartza • 94-684 49 80
-  **PATXON TABERNA.**
Karraspio hondartza
-  **ZUBI TABERNA.**
Likona auzoa • 629 421 598
-  **ITSAS ERTZ.**
Likona auzoa • 94-624 31 77
-  **ZELAIGANE PENTSIOA.**
Zelai auzoa • 94-624 32 15
-  **ENDAI KANPINA.** Lekeitio ondarroa
errep. 57.8Km • 94-684 24 69
-  **LEAGI KANPINA.** Lekeitio mendexa
errep. 1.5Km • 94-684 23 52
-  **VILLA ITXASO HOTELA.**
Villa Itxaso aldegi • 606 005 005
-  **METROKUA HOTELA.**
Karraspio hondartza • 94-684 49 80
-  **GARAZAR HOTELA.**
Zelai auzoa • 630 739 835

AMOROTO

-  **IBAI-GANE.**
Oleta auzoa • 94-684 13 59
-  **KLAUDIO JATETXEA.**
Oleta auzoa • 94-684 18 03
-  **EPERMENDI JATETXEA.**
Oleta auzoa • 94-684 17 62
-  **HERRIKO TABERNA.**
Elخالde auzoa • 94-624 35 23
-  **ALTUENA.**
Elخالde auzoa • 94-624 30 89
-  **ALTZOA.**
Odiaga auzoa • 609 310 791

GIZABURUAGA

-  **HERRIKO TABERNA.**
Elخالde auzoa • 94-684 45 30
-  **AKUIOLA.**
Laixer auzoa • 94-684 12 13

AULESTI

-  **MARIANO JATETXEA.**
Aulesti kalea, 48 • 94-627 90 24
-  **UBILLA JATETXEA.**
Aulesti kalea, 4 • 94-627 93 79
-  **ILUNZAR TABERNA.**
Aulesti kalea, 29
-  **ZARRABENTA JATETXEA.**
Aulesti kalea, 34 • 94-627 90 04
-  **ATXAGARAI ATERPETXEA.**
Urregarai zelaia • 94-627 90 06
-  **UBILLA ATERPETXEA.**
Aulesti kalea, 4 • 94-627 93 79

MUNITIBAR

-  **SINDIKATU.**
San pedro kalea • 94-616 57 76
-  **HERRIKO TABERNA.**
Herriko plaza
-  **ONDAMENDI**
San pedro kalea.
-  **TXORI**
San pedro kalea • 94-616 40 68
-  **ASTORKIGANA.**
Berreño auzoa • 94-625 23 56
-  **GARRO.**
Gerrikaitz auzoa • 94-616 41 36

**Administrazioa
eta arkitektua**
94-684 29 82

Ongizatea
94-684 29 63

Garapena
94-684 44 23

Elخالde, 1 • 48289 **GIZABURUAGA**
Tf./faxa: **94-684 29 82** • leaibarra@bizkaia.org

